

Rol eta eredu pedagogikoak birplanteatzen dira

Erakundeak pertsonala eta ikasleak ahalduz dituzte, eta haiengandik espero du ikaskuntza digitalerako teknologiak erabilita eskuratutako jardunbide pedagogiko eraginkorrak eta berritzaileak bereganatu eta moldatuko dituztela eta jardunbide horiek ikaskuntza-agertoki ezberdinetan erabiliko dituztela (erakunde barruan eta erakundetik kanpora), bai eta helburu ezberdinekin ere (formala eta ez-formala).

Pertsonalak aldaketarekin bat eginda jarduten du

Erakundearen helburua da kultura bat ezartzea **pertsonala** (ikasleak barne direla, hala dagokionean) **aldaketa-prozesuko kide** har dadin eta, nolabait ere, **pizgarriak** eman diezazkioten **arrisku neurtuak** har ditzan ikaskuntza-emaiza hedagarriak lortzeko, ikaskuntza digitalerako teknologiak integratzen eta modu eraginkorrean erabiltzen lagunduko duten **ikuspuntu berriak aztertze aldera**.

Pertsonalarentzat rol berriak aurreikusten dira

Erakundeak pertsonala ahalduz du ikaskuntza-**prozesuko aholkulari, prestatzaile eta erraztaile** gisa jardun dezan, bai eta **maila profesionalen etengabeko eguneratzearen eta ikaskuntzaren eredu** izan dadin ere. Espero da pertsonalak teknologia digitalekin esperimintatzea eta **sormena lantzeko eta berritzeko** erabiltzea, hain zuzen ere irakaskuntzan eta ikaskuntzan hobekuntzak egiteko.

Ikasleentzat rol berriak aurreikusten dira

Erakundeak ikaskuntza digitalerako eta edukirako teknologia, erreminta eta plataforma multimodal ezberdinak sustatzen ditu arreta **ikasleengan jartzen duten** eta ikaskuntza-**ingurune partikularretarako** optimizatuta dauden ereduak bultzatzeko (esate baterako, ikus-entzutezko materiala, e-portfolioak, HBlak, simulazioak, joko serioak, kodifikazio-inguruneak eta sormen-arteak egitea). Ikasleak bultzatzen dira **bere burua zuzentzen duten ikasle izatera, ikaskuntza-prozesua diseinatzen parte har dezaten**.

Eredu pedagogikoak hedatzen dira

Irakaskuntza eta ikaskuntza 'berdiseinatzen' dira teknologia digitalak sartzeko. Ikerketa garrantzidun batean oinarrituta, erakundeak **teknologiaren bidez erraztutako ikaskuntzako eta irakaskuntzako jardunbide malguak, moldakorrak eta erakargarriak** sustatzen ditu (esate baterako, jolastuz ikastea, esploratuz ikastea, sortuz ikastea, eginez ikastea, eta guztiateknologia digitalekin areagotuta eta hobetuta).

Ikaskuntza pertsonalizatua sustatzen da

Erakundeak laguntzen du ikaskuntza digitalerako teknologiak **ikaskuntza pertsonalizaturako aukerak areagotzeko** erabiltzen, **ikasleen indarguneak, ahalmena eta espektatibak kontuan hartuta**.

Sormena sustatzen da

Ikasleak eta pertsonalak **sormen-jardunbideak** esploratzera eta dibertsifikatzera bultzatzen dira **teknologia digitalak erabiliz**, sormena eta sormen-adierazpena errazten duten aldetik.

Elkarlana eta taldelana espero dira

Ikaskuntza prozesu sozial bat da, eta erakundeak **elkarlana eta taldelana** bultzatzen ditu eta espero ditu, kasu askotan **erreminta eta plataforma digitalen laguntzaz**. Horrek sustatzen ditu bakarka nahiz beste pertsona batzuekin lan egiteko eta pentsatzeko pertsonalaren eta ikasleen gaitasunak, nolabait ere ikuspegi ugari kontuan izatea ahalbidetuz.

Trebetasun sozialak eta emozionalak garatzen dira

Erakundeak sustatzen du pertsonalak eta ikasleek **trebetasun sozialak eta emozionalak garatzea** (emozioak ulertzeko eta kudeatzeko, helburu positiboak ezarri eta lortzeko, beste pertsona batzuekiko empatia sentitzeko eta erakusteko, harreman positiboak ezartzeko eta izateko eta erabaki arduratsuak hartzeko beharrezko trebetasunak), bai eta trebetasun horiek **ingurune digitaletan eta online aplikatu ahal izateko modua ere**.